



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jose M. Alzuri Vertiz
M. Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2017ko uztailaren 10ean, 11:00ak direnean, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. M. Jose Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel J. Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartzen da akta.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. I.B.E.k lizentzia eskatu zuen *Landabide* etxearen aurretik doan argi lerroa lurperatzeko (2 poligonoko 9 partzela). Zati bat Udalari emandako lursailean sartuko da eta eskatzailearen jabetzan gainerakoa. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak egiteko lizentzia ematea B. jaunari, betebeharrak hauek konplitzera baldintzatua:

- Argi indarreko enpresa banatzailearen baimena lortu obrak hasi aurretik.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 2.765,90 eurokoa da eta ordaindu beharreko zenbatekoa 82,98 euro.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.

2. J.A.E.k lizentzia eskatu zuen Ameztiko bidea metro bat zabaltzeko 120 metroko luzeran, zabalkuntza 2 poligonoko 135 lursail komunalari hartuta. Ingurune-inpaktu eta Paisaiako Atalak aldeko txosten baldintzatua eman du. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak egiteko lizentzia ematea A. jaunari, betebeharrak hau konplitzera baldintzatua: txosten teknikoak ezartzen dituen baldintzak bete. Bestalde, herri bidearen hobekuntza dela eta sustatzaileak ordaindu behar duela kontuan izanda, aho batez erabakitzen da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga nahiz hirigintzako tramitazioaren tasa ez likidatzea.

3. J.A.U.J.k lizentzia eskatu zuen 5 metro karratuko etxola eraikitzeko *Ikuzleku* etxearen atzealdean (2 poligonoko 300 partzela, lurzoru urbanizazina). Jarduera baimendua da (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeko 111.2 artikulua). Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da obrak egiteko lizentzia ematea U. jaunari, betebeharrak hauek konplitzera baldintzatua:

- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu obrak hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 2.944 eurokoa da eta ordaindu beharreko zenbatekoa 88,32 euro.
- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.

4. Abarun Kooperatibak lizentzia eskatu du Aurtizko Ostatuko terrazaren azpian dagoen biltegia ixteko jantokia handitu ahal izateko. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

da obrak egiteko lizentzia ematea eskatzaileari, betebeharrak hau konplitzera baldintzatuta: etxeko fatxada bezala margotu itxiera kanpoaldetik. Bestalde, herri ondarearen hobekuntza dela eta sustatzaileak ordaindu behar duela kontuan izanda, aho batez erabakitzen da eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga nahiz hirigintzako tramitazioaren tasa ez likidatzea.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituen).
- Hirugarrenen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egin. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. AURREKONTU ALDAKETA.

Lehendabizikoa. 2017ko aurrekontu orokorrean kreditu gehikuntza sartzeko 2 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da:

1. Hasierako onespina ematea kreditu gehikuntza sartzeko espedienteari.

2. Jendaurrean jartzea espedientea 15 eguneko epean, nahi duenak aztertu eta erreklamazioak aurkez ditzan.

Hau da aldaketaren laburpena:

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaio:

Kontusaila: 1-9200-22604. Gastu juridikoak eta auzienak. Zenbatekoa: 25.795,35 euro.

Kreditu aldaketa honela finantzatu da:

187000 kontusaila. Diruzaintzako gerakin likidoak. Zenbatekoa: 25.795,35 euro.

Bigarrena. 2017ko aurrekontu orokorrean kreditu sorkuntza sartzeko 3 zenbakia duen espedientea aztertu ondoren, aho batez erabakitzen da onespina ematea kreditu sorkuntza sartzeko espedienteari. Aurrekontu Orokorraren oinarrien 10. arauaren arabera ez da aldaketa iragarri beharrik.

Hau da aldaketaren laburpena:

Gastuak. Dotazioa gehitzen zaio:

Kontusaila: 1-2311-13100. Gizarteratzeko errenta hartzen duten langileak. Zenbatekoa: 5.000 euro.

Kontusaila: 1-2311-16000. Gizarteratzeko errenta hartzen duten langileen gizarte segurantzak. Zenbatekoa: 2.500 euro.

Kreditu aldaketa honela finantzatu da:



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

14508007 kontusaila. Gizarteratzeko errenta hartzen duten langileak kontratatzeke diru-laguntza. Zenbatekoa: 7.500 euro.

4. HIRIGINTZA PLANGINTZA.

Espedientean dauden agiriak aztertu ondoren eta Kontratu Publikoei buruzko 6/2006 Foru Legearen 70. eta 73.3 d) artikuluek xedatzen dutena kontuan izanda, aho batez erabakitzen da:

1. Pleguak onestea Iturengo Plan Orokorra egiteko laguntza kontratua esleitzeko, komunitate publizitaterik gabeko eta ohiko izapidetako prozedura negoziatuaren bitartez: baldintza administratibo eta ekonomikoen plegua eta preskripzio teknikoen plegua. Lanen aurrekontua 41.322,31 eurokoa da (gehi BEZa).

2. Proposamenak aurkezteko gonbidapena bidaltzea 4 arkitekto hirigile hauei: Maria Urmeneta Fernandez, Antonio M. Alegria Ezquerria, Jose J. Equiza Itoiz eta Jose I. Arribas Echeveste.

5. ESKABIDEAK.

1. Herriko bestatan salmenta postuak jartzeko eskaerak daudela ikusirik, gaia arautzea erabaki da eta hauek dira adostutako arauak:

- Postua jartzeko baimena jarri aurretik eman behar du Alkateak.

- Prezio hauek kobratuko dira eguneko: salmenta postua, 10 euro/eguna; tiro-pitxon eta janaria saltzen duten postuak, 50 euro/eguna; ohe elastikoak eta antzeko atrakzioak, 30 euro/eguna. Azkeneko hauek Latsagako bidean dagoen parkean kokatu beharko dira.

2. J.A.I.k eskatu zuen Arriberria etxearen parean dagoen ur zikinen tutua libratzea, trabatuta baitago. Aho batez erabakitzen da Udala egitea libratzearen kargu.

3. G.O.B.k Udaletxeko ganbara erabiltzeko baimena eskatu zuen, ludoteka zerbitzua emateko uztaila eta abuztuan. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabakitzen da erabiltzeko baimena ematea, erantzukizun zibileko aseguru hartzeko baldintzapean.

6. MOZIOAK.

Mozio hauek onesten dira:

1. Udaltzazak, aho batez, atxikimendua adierazten dio Altsasuko Udalaren adierazpen instituzionalari, 2016ko urrian izandako gertaeretan parte hartu zuten gazteen auzitaratzeari buruz.

2. Adierazpen hau, ekainaren 28ko ospakizunaren arira: "Iturengo Udalak, osoko bilkuran, erabakitzen du aho batez Ituren *HOMOFOBIA, TRANSFOBIA, LESBOFOBIA, BIFOBIA eta INTERFOBIARIK gabeko udalerri deklaratzeko*.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Udalerrri honetako herriak eta demokraziaren arabera hautatutako bere ordezkariak kanporatu nahi dugu Iturendik pertsonen bizitzaren, osotasun fisikoaren eta duintasunaren gutxiespen oro, edozein dela ere pertsonen sexu aukera eta genero orientazioa. Uste dugu Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren osagaia eta ardatza dela hori, eta elkarbizitza baketsua eta orekatua lortzeko bidea.

Sexu aukeragatik edo genero identitateagatik inor erasotzen edo gutxiesten dutenek jakin dezatela herri honek ez dituela onartzen. Eta beren izaera sexualagatik edo genero identitateagatik eraso eta gutxiespena jasan dutenek, jakin dezatela badutela Udal honen eta bere erakundeen elkartasuna.”

3. Udalbatzak, aho batez, atxikimendua adierazten dio Poligonoaren aurkako Asanbladari eta XXX. Bardeetako Poligonoaren aurkako ibilaldiari.

4. Udalbatzak, aho batez, atxikimendua adierazten dio Nafarroako Ezkerreko Junta Errepublikanoaren manifestuari.

5. Aurrekontu Egonkortasunari buruzko Legea dela eta, Iturengo Udaleko osoko bilkurak, aho batez, honako hau erabakitzen du:

1. Madrilgo Gobernuak 2012ko apirilaren 12an onartu eta ezarri zuen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege organikoaren edukia errefusatzeko.

2. Espainiako Gobernua premiatzea aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko legea ahal denik eta azkarren indargabetzeko hartu beharreko neurriak urgentziaz har ditzan.

3. Herritarrei eduki honen berri ematea eskura dituen bitartekoen bidez.

4. Akordio honen berri ematea Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari, Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Parlamentuari eta Ogasun eta Herri Administrazioetako Ministerioari.

7. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Jarraian, alkateak emandako ebazpen hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza:

- 2017/21 zenbakia, 2017ko maiatzaren 29koa, zeinean erabaki baitzen, Altsasun 2016ko urrian izandako gertaeren arira, elkartasuna adieraztea Nafarroako Legebiltzarrak, Altsasuko Udalak eta gizarte zibilak luzatu duten deia: prozesu haren izapideak Iruñan egin beharko lirateke.

- 2017/22 zenbakia, 2017ko ekainaren 20koa, “Belaunaldi berriko banda zabalerako sarbide sareak hedatzeko azpiegitura pasiboen arloko inbertsioen programa” ataleko inbertsioei buruz.

- 2017/25 zenbakia, 2017ko ekainaren 25ekoa, zeinean erabaki baitzen M..J.B.k eskatutako bereizketa lizentziaren ez beharrezkotasuna aitortzea.

- 2017/26 zenbakia, 2017ko ekainaren 23koa, zeinean erabaki baitzen F.J.A.ri ematea lizentzia *Joanea* etxeko lehenengo solairuko gapirio batzuk aldatzeko eta oholtza berria jartzeko.

- 2017/27 zenbakia, 2017ko ekainaren 23koa, zeinean erabaki baitzen J.M.ri ematea lizentzia *Izarrazpi* etxeko fatxadak pintatzeko.

- 2017/28 zenbakia, 2017ko ekainaren 26koa, zeinean erabaki baitzen J.A.ri ematea lizentzia *Erdiko Landa* bordako leihoak aldatzeko.

8. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Ondoren, agiri hauen jakinaren gainean geratzen da Udalbatza: Vianako Printzea Erakundea-Kultura zuzendari nagusiaren 142E/2017 Ebazpena, artxibatze sistema propioa bermatzeko diru-laguntza onesten duena; Nafar-Lansareko zuzendari kudeatzailearen 1322/2017 eta 1655/2017 Ebazpenak, langileak kontratatzeko diru-laguntzak onesten dituztenak; Zubietako Udalak, 2017ko apirilaren 11ko Osoko Bilkuran, hartutako erabakia, Medikuen Etxearen portzentaien banaketa berria onetsi zuena; Ekonomia Zirkularra eta Uraren Zerbitzuko zuzendariaren txostena, *Igerizarretako* presa mantentzeko Udal eskaerari erantzuna emanez; Nafarroako Gobernura bidali den baso aprobetxamenduko baimen eskaera —J.M.G.rena—; Nafarroako Gobernuak eman dituen baso aprobetxamenduko baimenak —J.M.G.ri, J.M.E.ri eta J.J.C.ri—; Abeltzaintzako zerbitzuak bidali dituen Ustiapenen Erregistroan izandako mugimenduak —S.A., J.M.A. eta U.E.ren bajak—; Herri eta Lan Osasuneko Institutuak egindako ur-analisien emaitzak; M.A.E.ri emandako lizentzia (Zubietako alkatearen 2017/42 Ebazpena), ur-hornidura eramateko *Bizarronekobordara*.

9. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.

Eta bertzerik ezean, 12:30 direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.